

PASTILLA KAXA ELEKTRONIKOA

Gu Nahia, Alba eta Janire gara, **Bombo Team**-eko taldekideak. Bigarren batxilergoko ikasleak Irungo Pio Baroja institutuan. Enpresa-administrazio eta kudeaketako ikasgaietan, gure irakasle Idurrek erronka berezi bat proposatu zigun: proiektu bat sortzea, non enpresa bat asmatu beharko genuen, gizartean eragin positiboa izango zuen lan eginez.

Erronka horri aurre egiteko, **Pills Save** izeneko enpresa sortu genuen. Gure helburua argia zen: adineko pertsonen bizitza erraztea eta eguneroko zereginetan laguntzea. Ideia hau garatzeko, adineko pertsonen beraien eguneroko pastilla hartzen laguntzeko produktu bat diseinatzea erabaki genuen. Izan ere, egunean zehar ordutegi ezberdinetan pastilla ezberdinak hartu behar izatea zaila izan daiteke, eta gure produktuak hori saihesten lagunduko du.

Gure asmoa, Pills Save-k gizartean inpaktu positiboa izatea da, eta adinekoen autonomia eta ongizatea sustatzea. Pills Save ez da enpresa bat bakarrik; bizitza hobeto baten aldeko konpromisoa da. Eta gustatuko litzaiguke urte batzuk barru norbaitek ekimena hartzea proiektua gauzatzeko, eta pastilleroa benetan existitzea, ideia oso ona delako eta jende askori lagundu diezaiokelako uste dugulako. **Pill Save** aurrerapauso handia izango litzateke gizartearentzat eta osasunaren munduarentzat.

Eskerrik asko gure proiektua **Elkarrekin, hobetuko dugu gizartearen etorkizuna!**